

## **GATAZKAK FAMILIAN ERABAKITZEA**

Ohikoa izaten da familietan gatazkak agertzea eguneroko jardueretan, adibidez, etxeko antolaketa eta etxekoen arteko harremanetan: familia barruan ematen diren harreman eta portaerak, seme-alaben hazkuntza, lana eta familia bateratzea, baita etxean jarraitu behar diren arau eta mugak betetzea; etxeko betebeharreran parte-hartzea, dirua, ikasketak, janzkera, gauean etxera bueltatzeko ordua eta anai-arreben arteko harremana edo familiako beste kide batzuekiko harremana.

Gainera, beste mota batzuetako gatazkak ere ager daitezke, besteak beste: nora zoazen, norekin, alkohol eta droga kontsumoa, portaera eskola testuinguruan, seme-alaben adiskideak, helduekin harremanak izateko modua. Hau da, familia-nukleotik kanpora ematen diren gatazkak baina, modu batean edo bestean, familian eragiten dituztenak. Batzuetan, gatazka horiek arazoak sor ditzakete bikotearen arteko harremanean eta krisialdia edo bikote-haustura ekar dezakete.

Gatazken arrazoi edo zergatiaz haratago, kontuan izan behar da familiako jardute edo funtzionamendua ezin daitekeela gaizki konpondutako gatazketan oinarrituta egon, seme-alaben garapen psikologikoa kaltetzen duelako eta bikotea eta harreman sozialak hondatzen dituelako.

Gatazkez hitz egiten dugunean pertsona gehienok negatiboki pentsatzen dugun arren, ez du zertan beti horrela izan behar. Gatazkak aldaketa suposatzen du, ideia, iritzi edo ikuspuntu bi edo gehiago kontrajartzea eta modu egoki batean ebatzita, errespetuan oinarritutako trebetasun sozialak aintzat hartuta, aurrera egiten, eta aldaketetara ongi egokitzen lagundu dezake; kalte egin beharrean, mesede egiten lagundu dezake.

Horregatik garrantzitsua da, helduek, beraien funtzioak eta familian bete beharreko arauak eta mugak zeintzuk diren ezagutzea eta aintzat hartzea. Ezinbestekoa da, helduek errespetuan oinarritutako trebetasun sozialen eta familiako kide bakoitzaren gatazken bideratze egokien gida eta eredu izatea. Horregatik, familiek ez dute beraien papera irakasleen esku utzi behar, gurasoak direlako baloreak finkatzearen arduradura dutenak.

## **LABURPENA**

Gatazka bat konpontzeko, gatazkek funtzio onuragarriak eta balio positiboak izan ditzakeenaren oinarritik hasi behar da; gatazkak arazo baten aurrean erantzuteko modu berriak eta onuragarriagoak irakatsi ditzakeelako, harreman osasuntsuak eta iraunkorrak eraiki, eta norbera hobeto ezagutzen eta besteak ere sakonago ezagutzen lagundu ditzake, betiere elkarrekiko errespetuan oinarrituta badago. Hala ere, gatazkak harreman antagoniko eta etsaitasunezkoak iraunaraziko dituen gorpil zoro batera ere eramán gaitzake. Horregatik, garrantzitsua da gatazken aurre-egite positibora bideratutako trebetasun sozialak ikastea; norbere hazkuntza eta heldutasunerako baita sozialerako ere.

## **ETXADI**

**Familia-psikologiaren Unibertsitate-zentroa**  
**Centro Universitario de Psicología de la Familia**